



Gurasoak

Jakintzaren ahotsa

ikasleen txokoa Goi mailako idazleak

zertan gabiltzan Oporretan zer?



jakintzaiikastola

agenda

URTARRILA

HAUR HEZKUNTZA

Danborrada adin guztiek.

LEHEN HEZKUNTZA

1. mailakoak: Santimamiñeko kobazuloetara irteera
2. mailakoak: Bilboko itsas museora bisita.

DBH

3. mailakoak: Gasteizera irteera, Artium ikustera.
4. mailakoak: Errege Kabalgatan antortxero.

DBHO 1

Soinetaketa oinarrizko ur sorospen ikastaroa.

DBHO 2

Uni-Navarrakoen, Mondragon Unibertsitatekoen eta Nebrijako unibertsitatekoen bisita.

OTSAILA

HAUR HEZKUNTZA:

- 2 urtekoak: Herriko azoka ikustera.
- 4 urtekoak: Herriko eskulturak ikustera.

LEHEN HEZKUNTZA

6. mailakoak: Agenda 21, landareen azterketa.

DBH

1. mailakoak: Arriaran-Legorretara irteera.
- Komunikazio Tailerrekoak Zaharren Egoitzan emanaldia.

DBHO 2

UPV Eibarko ikasleen bisita jaso dute.

MARTXOA

HAUR HEZKUNTZA

- 2 eta 3 urtekoak: Herriko parkera bisita.
- 4 urtekoak: Unanue gozotegira bisita. Herria ikustera. Suhiltzaileei bisita.

LEHEN HEZKUNTZA

1. mailakoak: D'Elikatuz zentrora bisita. Biodibertsitatearen azterketa Altamirako parkean.
2. mailakoak: Kutxa Espaziora irteera. Planetariuma bisita. Biodibertsitatearen azterketa Altamirako parkean. Jubilatuen etxean abesbatzaren emanaldia.
3. mailakoak: Literatura tailerra. Ibares baserriaren ingurura. Kutxa Espaziora bisita.
5. mailakoak: Belaunaldien arteko komunikazioa.
6. mailakoak: DBHkoen emanaldia kiroldegian. Kontsumo tailerrak. Gurasoentzat hitzaldia.

DBH

- Maila guztiak: Dantza emanaldia. Lehorreko oinarrizko sorospen ikastaroa.
2. mailakoak: Ikaspilota Zumarragan.
 3. mailakoak: Iraupen eskia egiteko irteera Belaguara.
 3. eta 4. mailakoak: Frantseseko ikasleak Futuroscopera.

APIRILA

DBH

2. mailakoak: D'Elikatuzen esku Ordiziako Historia ezagutzera, Segurako interpretazio zentrora eta Zeraingo Aipeako meategira bisita.

LH

2. mailakoak: Janari hotzen ekoizpena aitona-amonon eskutik.
4. mailakoak: Arriarango urtegiara irteera
5. mailakoak: D'Elikatuzera bisita.
6. mailakoak: Idazlea ikastetxean. Suhiltzaileei bisita.

OROKORRAK

Inauteriak.
Euskaraz bizi.
Ahoz Aho kanpaina barruan jarduerak.
Korrika.



MANU OLANO
Jakintza ikastolako zuzendaria

Udako plazari begira

Hiruhileko luzea izan da oraingoa eta urruti gelditzen da Gabonetako alea. Aspaldiko kontuak dirudite, esaterako, urtarrileko aldapak, inauterietako mozorroak edo elurrarenak. Aurten ez du elurte handirik egin Ordizian, eta horrelakoetan, parean elurrik ez dagonean urrutira joan behar maiz zuzia zapaltzera. Hori egin dute, adibidez, gure mendizaleek, batzuek iraupen eskiekin eta beste batzuek beren gorputzekin zabaldu dute elur zuria, eta, nolabait esateko, bete dute beren gutizia.

Beste gauza asko ere egin dira ikastolan tarte horretan. Adibidez, ikasturte hasieran egindako gurasoen bilerak errepikatu dira. Ehunka guraso bildu dira geletako orde-

kariekin. Talde bakoitzak aztertu ditu beraientzat garrantzitsuak diren gaiak. Hortik jasotako ekarpenak balio handikoak dira gure eguneroko eta etorkizuneko lanketa sustatzeko eta ez ditugu zakarrontzira botako.

Eguzki izpien berotasuna gure sorbaldan sumatzen hasi garen honetan, nola ez aipatu udako kontuak. Hortxe dituzue udalekuen aipamenak. Benetan aukera asko eta erakargarriak dituzte zuen seme/alabek udako tarte horretan egiteko eta gozatzeko. Hasteko, lagun berriak egiteko aukera, gauza ezberdinak ikasteko aukera. Izan ere, dena ez da gela barnean ikasten, ezta pentsatu ere, udako plazak aukera asko ditu.

Ha sido un trimestre largo y ya queda lejos el ejemplar de las Navidades. Parecen ya de otro tiempo la cuesta de enero, los disfraces de Carnaval y las nevadas. Este año no ha nevado mucho en Ordizia y en estos casos no queda otra que buscar fuera ese manto blanco. Eso es lo que han hecho nuestros mendizales; algunos han saciado su deseo con esquís de fondo, y otros, han disfrutado con la nieve.

Se han hecho otras muchas actividades en la ikastola durante este tiempo. Por ejemplo se han repetido las reuniones que se celebraron las madres y los padres al principio de curso. Son cientos las madres y padres que se han reunido con los Representantes de las Aulas. Cada grupo ha analizado los temas que les resultaban interesantes. Las conclusiones de esas reuniones son fundamentales para nuestro trabajo diario y para fomentar las ideas de futuro, por lo que no caerán en saco roto.

Cuando comenzamos a sentir los primeros rayos de sol en nuestras espaldas, nos es indispensable comenzar a hablaros del verano. Aquí os va la primera referencia de las colonias. Encontraréis un interesante abanico de oportunidades para los más pequeños disfruten este verano. Buena ocasión para hacer nuevos amigos, y de realizar actividades diferentes. No todo se aprende en las aulas, el verano da muchas oportunidades.

Maitatu, ikasi, ari... EUSKALAKARI!



Euskararen erabilera sustatzea eta indartzea izanik Jakintza ikastolaren helburutako bat, helburu berarekin lanean diharduen AEK-k antolatutako Korrikarekin bat egin dugu.

Apirilaren 7an Trebiñun hasi eta apirilaren 17an bukatuko da Donostian. Egun hauetan "Korrika" kanpaina burutu dute gure ikasleek, kanta eta mezua erabiliz kanpaina kokatzeko eta girotzeko. Jarduera ezberdinak izan dituzte, beti ere adin-tarte bakoitzari dagozkion jarduera esanguratsuenak hautatuz. Esaterako, lehen zikloan ipuinetatik eratorritako jarduerak izan dira nagusi. Bigarren zikloan ipuinarekin jarraituz, sintesirako eta

deskribapenerako gaitasuna lantzeko aukera izan dute. Hirugarren zikloan, berriz, euskararen erabilerekin konpromisoa hartu dute. Bigarren Hezkuntzari dagokionez, beste ekintzen artean teknologia berriein aritu dira, hauek ere euskaraz landu daitezkeela gogoratuz.

Hilaren 13an "17. Korrika" Ordiziatik pasa zen. Jakintzako eta Urdanetako HHkoak, eta Alotza haurtzaindegikoak "Korrika Txikia" egin zuten Domingo Unanue Plazan. Ikasle helduagoek eta irakasleek, berriz, "Korrika ofizialean" gogoz parte hartu zuten, aurtengo lema gogor aldarrikatuz "maitatu, ikasi, ari... EUSKALAKARI!"



Siendo el uso y fomento del euskara uno de los objetivos fundamentales de la ikastola Jakintza, este año también nos hemos unido al trabajo que AEK hace mediante Korrika.

La 'carrera' que comenzó el pasado 7 de abril concluirá el próximo 17 de abril en Donostia. Nuestros alumnos han celebrado estos días la campaña de 'Korrika', empleando su eslogan y banda sonora para ambientar. Han realizado diferentes actividades.

'Korrika 17' pasó por Ordizia el 13 de abril. Las niñas y niños de primaria de la Ikastola Jakintza y de Urdaneta, junto a los pequeños de la guardería hicieron, como el habitual, la 'Korrika Txiki' por las calles de la villa. Y los más mayores participaron con entusiasmo en la Korrika oficial, reivindicando el lema de este año: 'maitatu, ikasi, ari... EUSKALAKARI!'

Ikastolako argazki guztiak Flickr-en! Sar zaitez

Dagoeneko, 31.000 argazki baino gehiago dira Flickr izeneko zerbitzuan gure ikastolak zuen esku jarrita dituenak. Gure ikastolako argazki bildumak ondorengo helbidean topa daitezke:

http://www.flickr.com/photos/jakintza_ikastola/sets/

Interesatzen zaizuen argazki bilduma ikusteko, klikatu besterik ez duzue egin behar. Behin bilduma irekita dugula, argazki guztien laukitxo txikiak ikusiko ditugu. Horietako batean klik eginda argazki hori tamaina handiago batean ikusi ahal izango duzue. Argazkia jaitsi nahi izanez gero, irudi horren gainean "acciones" izeneko botoian klikatu eta "ver más tamaños" hautatu. Une horretan, argazkia jaisteko neurri ezberdinak (baita jatorrizko neurria ere) agertuko dira argazkiaren gainean. Nahi duzun neurria hautatu ondoren, "descargar el tamaño..." esteka agertuko zaizu neurrien gainean. Horri klikatu eta zure ordenagailuan izango duzu hautatutako argazkia.

GURASOAK JAKINTZAREN AHOTSA

“Ezin dugu ahaztu ikastola denon artean eraikitako proiektua dela”

Badira hamaika gauza eman ahala hartzen ditugunak. Eta izate ukiezinen batek egin balitu bezala onartzen ditugunak ere bai. Urrutira jo gabe, adibidez, ikastetxe honen beraren kudeaketa; urteko aurrekontuen zenbatekoa; zentroaren funtzionamendua; bere bilakaera pedagogikoa; jaien antolakuntza; eta zergatik ez, aldizkari hau berau. Nor da bada hori guztiaren arduraduna? Ikastolako Junta. Proiektu guztiaren motorra.



“Ona izango litzateke gurasoek ikastolaren funtzionamenduaren ezagutza maila handiagoa izatea, baina gizarte honetan, orain eratuta dagoen bezala behintzat, oso zaila da. Beste lehentasun batzuk daude, eta ez dugu sentitzen hori gure betebeharra denik. Ordaintzen dugun heinean eskubide gisa ulertzen dugu gehienez, baina horrek ez gaitu kudeaketaren erantzukizunetik kanpo uzten. Ezin dugu ahaztu ikastola guztion artean eraikitako proiektua dela”. Borondateen adierazpen hutsa balitz, honekin amaitu genezake erreportajea. Aurreko hitzak Garikoitz Telleriarenak dira, Jakintza ikastolako juntakide berria iragan abenduaren 14az gozotik.

lazko urteko batzar nagusia erreleboaren batzarra izan zen. Azken

lau urteetan lehendakari lanetan aritu den Mikel Otamendiri Ixone Zurutzak hartu dio lekukoa eta berarekin batera guraso talde berria hasi da lanean. Garikoitz juntakide bat gehiago da, baina bere lan jardunagatik eta “daukadan izaeragatik” komunikazioaren arduraria hartu du Juntan. Zuzendaritzak egin proposamenari baietza eman zion, lanpetu samar dabilen arren, ezetz esatea oso zaila egin zitzaion. “Ikastola eguneroko gure bizitzan txertatuta egon da haurtzarotik. Ama urtetan izan delako bertako irakasle eta beti kontatu digulako nolakoak izan ziren hastapenak. Maila profesionalean ere erantzukizunak hartzen joan ahala konturatu nintzen kudeaketa mailan banuela zer eskaini, eta zer hobeto norbere ikastolari eskaintzea baino”.

Funtzionamenduaren oinarri

Gurasoen Junta badela ezagutzen dute guraso gehienek, baina egotetik izan eta egitera zein pauso ematen dituen agian ez. Garik azaltzen digu. “Uneoro inportanteak eta estrategikoak diren kontuak hausnartzea eta kontuok nola bideratu behar diren erabakitzea da Juntaren lana. Gai asko zuzendaritza berak atera beharrekoak izaten dira eta Juntak kasu horretan egiten duena da gai horiek berretsi edo, hala irizten badiogu, zalantzan jarri. Erabaki hauek alor pedagogikoan, ekonomikoan eta kulturean hartzen dira. Hiru batzorde horiek juntakideek osatzen dituzte. Gero badira beste gai batzuk, batzordeetatik ez ezik, zuzendaritzatik zuzenean datozenak, Administrazioari dagozkionak adibidez”.



Junta 8 irakaslek eta 8 gurasok osatzen dute. Edo hala behar luke behintzat.

“Talde majoa ari da lanean –diosku Telleriak–, baina zailtasuna dago gurasoak erakartzeko; parte-hartze maila jaitsi egin delako. Gizartea eraldatu egin da eta inplikazio maila eta inguruarekiko arduraren maila jaitsi egin da, edo eraldatu, eta zuzendaritzak zailtasunak ditu gurasoak Juntara erakartzeko. Juntan oraindik gurasoren bat falta den arren, gauden artean sintonia ona dago, lan giro ona. Gardentasun handiarekin lantzen dira gaiak eta horrek erraztu egiten du beste gurasoekiko komunikazioa”.

Komunikazio lana sustatu da urteotan Jakintzan eta Junta eta gurasoen arteko harremana mekanismo eraginkorraren bitartez egiten da. Egun ikastolan dauden 37 geletariko bakoitzean bina ordezkari daude eta urtean bitan gutxienez biltzen dira juntakideengandik informazioa jasotzeko. Informazio horren transmisioa mailakako bileretan egiten da ondoren eta hor parte hartzen du gurasoen gehiengoak ikastolaren funtzionamenduan.

Badago, baina, gurasoak gehiago erakartzen duen atalik. Urtean zehar burutzen den hainbat ekimen ezin dira egin gurasoen parte hartzerik gabe. Gurasoak erabaki organoetan egoteko zailtasunak badaude ere, ekintzen antolakuntzan parte hartzea handia izaten da. Garirentzat ere normala da hori. *“Bertigo gehiago ematen du juntakide izateak ekimenetan parte hartzeak baino. Ekimenetan gehiago parte hartzen dute gurasoek. Eta pozgarria da, eredu hori ere galtzen ari baita. Lehen auzolanean lan egiten zen eta orain ez. Ez da erraza eredia mantentzea”.*

Gurasoen Junta indartzeko ahaleginean jarraituko dutela aitortu du Garik. *“Lana eskatzen duen arduraren da, bai, baina asko eman diezazukeena ere bai. Beti dago zer ikasia. Niri*

halaxe pasa zait. Urte batzutan deskonektatuta egon naiz, atzerrian bizi nintzelako, eta itzuleran banuen zerbaiten beharra. Kontu asko gertatzen dira guraso eta haurren artean eta hori gertutik ezagutzea interesgarria da oso. Guk ahal duguna eskaintzen diogu ikastolari, bakoitzak bere mailan, baina asko ikasten ari gara aldi berean”.

Ikastolaren etorkizuna ilusioz hartu du Gurasoen Junta berriak, eta egun dauden hutsuneak betetzeko eskaintza faltarik ez dago. Gariren hitzetan edozeinek du zer eskaini eta, gainera, ezagutzan eta jakiturian ordaina ere tamainakoa izaten da. *“Ikastolaren eraikina altxatuta zela jaio gara gu eta sarritan iruditzen zaigu zerbitzu bat emateko bakarrik dagoela, baina ez da horrela”.*

“Ona izango litzateke gurasoek ikastolaren funtzionamenduaren ezagutza maila handiagoa izatea, baina gizarte honetan, orain eratuta dagoen bezala, oso zaila da”

GARIKOITZ TELLERIA



“No debemos olvidar que la ikastola es un proyecto construido por todos”

“Sería bueno que las madres y padres tuviéramos más conocimiento del funcionamiento de la ikastola, pero en esta sociedad, tal como está constituida hoy en día, eso es muy difícil. Hay otras prioridades y no entendemos que este sea nuestro quehacer. En cuanto pagamos una matrícula creemos que lo que percibimos es solamente un derecho, pero ese hecho no nos excluye de asumir responsabilidades. No debemos olvidar que la ikastola es un proyecto creado por todos”. Si fuera una simple declaración de intenciones el reportaje acabaría aquí. Las palabras son de Garikoitz Telleria, miembro de la Junta desde el pasado 14 de diciembre.

La asamblea general del año pasado fue la del relevo. Ixone Zurutuza cogió el testigo que Mikel Otamendi ha llevado durante cuatro años. Gari Telleria es un miembro más de la Junta, aunque por su carácter y su disposición profesional se ha convertido en el encargado de comunicación. “La ikastola forma parte de nuestra historia vital y de la misma forma que a nivel profesional he ido aceptando responsabilidades, me dí cuenta que también en la ikastola podía aportar mi granito”, afirma..

La mayoría de las madres y padres saben que la Junta existe, ¿pero sabemos qué es en realidad? Garikoitz nos lo explica. “Todas aquellas decisiones importantes y estratégicas que se adoptan en torno a la ikastola se toman en la Junta. Estas decisiones suelen ser pedagógicas, económicas y culturales”.

La Junta está formada por 8 profesores y 8 padres y madres. O así debiera ser al menos. “Hay un buen equipo de trabajo –dice Telleria–, pero hay muchos problemas para implicar a los padres y madres. La sociedad ha cambiado y el nivel de implicación ha bajado. Todavía nos hace falta algún padre o madre más en la Junta, pero entre los que estamos hay buena armonía. La transparencia es buena y eso facilita el trabajo”.

En Jakintza se ha trabajado mucho la comunicación y gracias a ella la totalidad de las madres y padres reciben información puntual de la Junta. Lo hacen a través de los responsables de las gelas –2 en cada una de las 37 aulas que hay en Jakintza–, que se reúnen como mínimo dos veces al año. Y estos a su vez tratan las informaciones con las madres y padres por curso.

Las actividades que realiza el centro cuentan con más participación que la Junta. Para Telleria es normal: “La Junta da más vértigo que la participación en los actos”. Gari, no obstante, piensa seguir en la brecha. “Esta es una responsabilidad que obliga al trabajo, pero aporta muchísimo. A mí, al menos, es lo que me ha ocurrido y pienso seguir aportando lo que pueda mientras pueda”.

El grupo afronta con ilusión el reto de la Junta, pero estarán agradecidos de recibir cualquier participación. Según Gari cualquiera puede aportar en este trabajo. “Hemos nacido con el edificio de la ikastola ya construido y podemos caer en la tentación de pensar que está ahí solo para prestar un servicio, pero eso no es así”.

Mikel Otamendi

“Haurraren heziketan lehen arduradunak gurasoak gara”

Urtarrilean zikloa amaitu zuen arren, Mikel Otamendi 5 urte egiteko bidean doa Jakintza juntakide gisa. Lau urtekoa Lehendakari gisa aritu ondoren, “*erdi kanpoan behar nuen arren*”, ikastolari ‘engantxatuta’ darrai.

Junta ikastolaren eragilerik inportanteena da. Nola baloratzen duzu Juntaren zeregina eta Juntak egiten duen lanaren transmisioa?

Jendea ez da behar beste inplikatzeko. Pertsona batzuek, puntualki, bai, baina gehixeago eskatuko nuke.

Zein da Juntaren betebeharr nagusia?

Ikastolaren kudeaketa bere gain dago. Ikastolaren funtzionamenduan sortzen diren gai guztiak aztertzen dira Juntan eta funtzionamendu egokirako erabaki guztiak ere bertan hartzen dira.

Juntan daramatzazun ia 5 urte horietatik zer azpimarratuko zenuke?

Zuzendaritzatik asko saiatu dira gurasoen parte-hartzea bultzatzen, baina ez dakit zenbateraino ulertu den behar hori. Proiektuan sinisten duten pertsonen esker jarraitzen du honek indarrean. Nabaritu dut gurasoen inplikazio maila areagotu egin dela azkenaldian, baina, oro har, ez behar bezainbeste. Indar gehiago egin behar da oraindik.

Ardurak hartzea baino errazagoa da, beharbada, antolatzen diren ekintzetan parte hartzea.

Halaxe da, bai. Nire kasuan, adibidez, nik sinisten nuen ikastolaren mugimenduan eta honetarako tartea hartu behar nuela pentsatzen nuen, baina inondik inora ez nuen uste hainbestetarako ardura hartuko nuenik. Gainera, norberarak duen formazioaren arabera gai asko eskuetatik joaten zaizkizu. Batzuk gauza batzutan moldatzen gara ondo eta beste batzuk besteetan. Urteen baitan, baina, ia denetara jartzen zara. Busti ahala zerbait egin dezakegula iruditzen zaigu; gutxienez iritzia eman.

Nolakoa da irteetan utziko duzun taldea?

Orain sartu den lan-talde berrian dauden hainbatekin oso gustura aritu naiz. Ardura izan duzunean, uzteko garaian nork hartuko duen arduratzen zaitu. Esan bezala, ordea, badira ondo moldatzen ikusi ditudanak kide berriak. Dena den, Junta oraindik herren samar dago, jende asko behar da dinamika egokia hartzeko. 8 irakaslek eta 8 gurasok osatu behar dute Junta eta egun 6 guraso baino ez daude. Oso lanpetuta bizi gara eta nahikoa da Juntara batek edo bik huts egitea lana neketsuagoa izateko.

Nola ikusten duzu egun Jakintza ikastola?

Erreferentea da; herrian oso errotuta dagoen proiektua da. Ikastolak oraintxe duen arazoa tokirik eza da. Matrikulazioek gora egiten dute urterik urte eta Administrazioarekin kinka izaten dugu beti kontzertazioak direla eta ez direla. Nolabait esateko, baratze baten barruan gaude, indarrez ernetzen, baina eremua mugatuta dugu.

Esan nahi diezu zerbait gurasoei?

Haurren heziketan lehen arduradunak gurasoak gara eta ezin dugu heziketa utzi besteen esku bakarrik. Parte hartu behar dugu heziketa horretan profesionalen eskutik. Gurasook dugu zartagina eskutik helduta, baina profesionalen beharra dugu hau aurrera ateratzeko. Garbi izan behar dugu hori. Parte hartzeko eskatuko nieke.





GOI MAILAKO IDAZLEAK 9 SARI BEASAINGO XXI. IDAZLAN LEHIAKETAN

Otsailaren 12an banatu ziren Beasaingo XXI. Idazlan Lehiaketaren sariak Usurbe antzokian. Herriko agintari, ikastetxetako ordezkari eta saritutakoen familiarteko ordezkariak zabala bildu zen bertan. Gaztetxoen mailan Beasaingo ikasleek bakarrik parte har dezakete eta DBHtik gora eskualdeko ikasleek esku hartzen dute, dagoeneko sona handia duen idazlan lehiaketan.

Urtero gertatzen den moduan, aurten ere sarituen artean, Jakintza ikastolako ordezkariak

zabala dagoela esan behar dizuegu. Guztira 9 sari lortu dituzte gure ikasleek eta aipatu behar dugu horien artean 2 lehenengo sari daudela.

Goiz atsegina igaro genuen Usurbe zine aretoan eta, nola ez, oso pozik itzuli ginen Ordiziara hainbeste sari besapean hartuta.

Bejondeiela Jakintzako idazleei!

*(Saridunak eta bakoitzak egin duen lana ezagutzeko bisitatu <http://jakintza.net/2011/02/14/goi-mailako-idazleak/>)

El pasado 12 de febrero se entregaron en el cine Usurbe de Beasain los premios correspondientes al XXI. Certamen Literario. En el caso de los más pequeños, tan solo podían participar alumnos de Beasain, aunque a partir de la ESO la inscripción esté abierta a cualquier alumno de la comarca.

Como ya viene siendo habitual, una amplia representación de Jakintza ha sido premiada en esta nueva edición de prestigioso concurso. En total han sido 9 los trabajos premiados de nuestros alumnos; dos de ellos, primeros premios.

Celebramos un día estupendo en el cine Usurbe de Beasain, y como no, volvimos tan contentos a Ordizia, con un saco lleno de trofeos. Zorionak a todos.

*(Se pueden leer los trabajos premiados en la siguiente dirección: <http://jakintza.net/2011/02/14/goi-mailako-idazleak/>)

OPORRETAN ZER?

Ez pentsa gero hain urruti ditugunik! Konturatzerako gainean ditugu. Bai, oporrei buruz ari naiz. Uda bertan dugu eta zerbait prestatzen hastea komeniko litzateke. Aukerak? Milaka.

Antolaketa horretan, agian, lagungarri izango zaizkizun zenbait ekintzen zerrenda ekarri dizugu hona. Goian aipatu bezala aukerak milaka daude eta hemen ez zaizkizu batzuk besterik agertuko. Ea gustuko dituzun.

No penséis que las vacaciones de verano están tan lejos. Para cuando nos queramos dar cuenta estarán asomando por la esquina. Por lo tanto, debemos empezar a preparar algo. ¿Opciones? ¡Todas!

Os proponemos algunas actividades que hemos preparado y entendemos que pueden ser

ZER	NON	NORENTZAT	NOIZ
EUSKAL UDALEKU IREKIAK	Ordizian	5-8 URTE	UZTAILA
GAZTE EGONALDIAK	Espejo (Araba)	12-14 URTE 15-18 URTE	UZTAILA
SURF UDALEKUA	Zarautz	10-12 12-14 15-18	UZTAILA
ATZERRIKO EGONALDIAK INGELESEZ	Maghera (Ipar Irlanda) Bray (Irlandako Errepublika)	13-17 URTE	UZTAILA
INGELES UDALEKUAK	Ordizia (Jakintza ikastola) Lekeitio Zarautz Bermeo Sopela	6-12 URTE 10-12 URTE 12-14 URTE 11-13 URTE 13-16 URTE	UZTAILA UZTAILA UZTAILA UZTAILA

de ayuda para preparar el periodo estival. Como ya os adelantamos, hay muchas opciones, y las que nosotros os acercamos no son más que algunas. A ver si son de vuestro agrado.

Hala bazan edo ez bazan... SAR DADILA KALABAZAN!

Ordiziako Udalak antolatzen duen "AHOZ AHO", Ahozkotasunaren Nazioarteko Jaialdian, Jakintza ikastolakook ere parte hartu dugu. Ugari dira bertan antolatzen diren ekintzak. Ekintzetako bat, LHko ikasleen artean, konpartituz, kalabaza-maskota sortzea, Ordiziako haurrek bere egingo duten maskota.

Kalabaza hiru fasetan sortu da. Lehenengo fasean, 5. eta 6. mailako ikasleek okume taulan kalabaza silueta zerraz moztu dute eta ondoren ertzak lijatu. Bigarren fasean,

1. eta 2. mailako ikasleek margotu egin dituzte. Hirugarren fasean, berriz, 3. eta 4. mailakoek txukun- txukun apaindu dituzte. Amaitzeko, kalabazak komertzio ezberdinetan banatu eta jarri dira.

Euskal Herriko istorio, kondaira eta ipuin gehienak belaunaldiz belaunaldi, ahoz aho transmititu ohi dira. Eta ohi den bezala ipuinak honela amaitzen dira: "Hala bazan edo ez bazan... SAR DADILA KALABAZAN! eta atera dadila Ordiziako plazan".



La Ikastola Jakintza ha participado en el programa Internacional de la Oralidad, 'AHOZ AHO', organizado por el Ayuntamiento de Ordizia. Se han realizado multitud de actividades. Una de ellas, compartida por el alumnado de Primaria, ha consistido en realizar mascotas con calabazas. El trabajo se ha realizado en tres fases y en ellas han participado alumnas y alumnos del centro. Para concluir, las mascotas se han expuesto en los centros comerciales de Ordizia.

Los cuentos en Euskal Herria se han transmitido oralmente generación tras generación y como acostumbramos a acabar, acabamos también nosotros: 'Hala bazan edo ez bazan... SAR DADILA KALABAZAN eta atera dadila Ordiziako plazan'

JAKINTZA HIRI HEZITZAILEAK PROIEKTUAN PARTAIDE

Aurtengoarekin bigarren urtea da, Hiri Hezitzaileak proiektuaren ikuspegitik, Ordizian ekintza ezberdinak antolatu eta martxan jartzen direna. Otsailaren 3an ospatu zen horietako bat Ordizian. Jubilatuen egoitzara hurbildu ziren Jakintza ikastolako DBH1eko Komunikazio Tallerreko ikasleak Maider Bartolomeren laguntzarekin.

Musikak dio izan zen eskaini zuten emanaldia. Ikasleek beraiek aurrez aukeratutako abestiak landu zituzten eta abesti bakoitzak sortarazten dituen sentimenduak transmititu zituzten gorputzaren bidez, hitzik erabili gabe.

Emanaldiaren hasierako urduritasunak baztertu zituzten gure ikasleek eta oso gustura jardun zutela esan behar dugu. Honelako ekintzak oso egokiak dira ikasleak egoera berri batean jarri behar dutelako, egoera hori airosu gainditzen trebatu behar direlako eta, nola ez, beste balore batzuk lantzeko oso baliagarriak direlako. Irakasleok ere oso balorazio positiboa egin genuen.

Esker oneko publikoa izan zuten ikasleek eta txalo zaparrada handiarekin eskertu nahi izan zuten bertara hurbildutako guraso, aitona-amonek, eta nola ez, "Eguneko Zentrotik" jaitsi ziren lagun guztiek.

Por segundo año consecutivo, está en marcha en Ordizia el programa de Ciudades Educadoras, en la que también participa la ikastola. El pasado 3 de febrero, los alumnos de DBH1 realizaron una actividad en el Hogar del Jubilado de la mano de Maider Bartolome.

La interpretación de 'Musikak dio' contó con el beneplácito entusiasta de los actores y, como no, del público, que se volcó con el bien hacer del alumnado, muy predispuesto para la ocasión.

INFOGELA

Etxeko txikienak ere Urtxintxa metodologiari jarraiki burubelari ikusten ditugu ordenagailuan, euskara hutsean garaturiko CD-Rom interaktibo honen jardueren ezaugarrietako bat izaera ludikoa da, haurrari jolasak eragiten dion motibazioa baitu ardatz. Bertan aurkituko

dituzten jarduerak honako hauek dira; abestiak, igarkizunak, idazketa txokoa, labirintoa, ipuinak eta puzzleak beste ekintza batzuen artean. 3 urtetik 5 urte bitartera gelan ordenagailua izaten dute jolas librean, horrez gain, 4 eta 5 urtekoak infogelara joaten dira ordenagailuz gozatzera.

Los más pequeños andan entusiasmados con la informática, gracias a la metodología de Urtxintxa. La culpa la tiene un CD-ROM interactivo grabado íntegramente en euskara y con un componente lúdico incalculable. En el encontrarán canciones, acertijos, laberintos, cuentos y puzzles, entre otros. Los alumnos de 3 a 5 años disfrutaban del ordenador en clase mientras los de 4 y 5 años acuden a la infogela.

ON EGIN!

Zeinen garrantzitsua den elikadura gure osasunean! Ondo jaten al dugu? Denetik? Orekatuta? ... Galdera hauen guztien eta gehiagoren erantzunak gure 5.mailako neska-mutilek dituzte. Izan ere, "*Janariak eta Elikagai orekatuak*" proiektuan aritu dira buru-belari duela gutxi.

Zer bururatuko eta PINTXO LEHIAKETA antolatzea bururatu zitzairen. Ba ote dago, euskaldunontzat batez ere, mahaiaren inguruan burutzen diren proiektuak baino gauza atseginarorik? Bide batez, jubilatuen konbidatu zituzten belaunaldien arteko komunikazioa sendotzeko.

Aurkezpenean era guztietako pintxoak agertu ziren, baita lurralde ezberdinetakoak ere. Jakina, pintxo bakoitzak bere "fitxa teknikoa" zeraman alboan. Konbidatuak, eskarmentu handikoak

guztiak, gustura gelditu ziren egin zuten dastaketarekin. Beno, dastatu baino zerbait gehiago egin genuen, ez baikenuen bazkaltzeko premia handirik izan.

Giro ezin hobean eraman zen aurrera aurkezpena. Etorri ziren jubilatuen ordezkariak beraien balorazioak, istorioak eta pasadizoak kontatuz aritu ziren gure ikasleek aho zabalik entzuten zieten bitartean. Gure neska-mutilek "Elikadura orekaturako" garrantzi handia duen belaunaldien arteko komunikaziotik edateko aukera paregabea izan zuten. Bapo ase zuten euren egarria. Iturri zaharretik edan zuten, iturri zaharretik betiko ura, ur berria.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu etorri ziren Kontxita, Maritxu, Pakita, Joxe Mari eta Juanitori beraien bizipenak kontatu eta elkarren arteko komunikazioa sustatzeagatik.

Qué importante es la alimentación, ¿verdad? Pues a nuestros alumnos no se les ocurrió otra cosa para demostrarlo que organizar un campeonato de pintxos. Inmersos en el proyecto "Comidas y alimentos equilibrados", el alumnado preparó todo tipo de delicias que pudimos degustar con mucho gusto y en compañía de una representación de jubilados que se acercaron a contar sus experiencias.

irteerak

Natura lantzen

DBH leko ikasleak Arriaran eta Legorretako urtegi eta araztegiak bisitatu zituzten. Bertan Natura gaiari lantzen zituzten kontzeptuak landu dugun uraren prozesuaren inguruan.

DBH 3koak Belagoan

Martxoaren 16an, DBH 3ko ikasleak Belaguako iraupen eski pistetan jo eta su ibili ziren eskiatzen.

Goizeko 08:30ean Arboledatik irten eta 12:00etan Larrako eski pistetan materiala hartuta prest zeuden ikastaroa hasteko. Hiru orduko ikastaroaren ondoren, beraien zioten moduan, denak eskiatzailer "pro" bihurtu ziren. Goizean ikasitakoa praktikan jarri asmoz, arratsaldean ere gozatu handia hartu zuten; oraingoan bere gisara.



Zeraingo Aizpeako meategira bisita

Segurako eta Ordiziako hiriguneak Monumentuen Multzo Historiko Artistikoan sartuta daude. Erdi Aroko hirigunearen itxura kontserbatzen dute. Horregatik, bertako kaleetatik ibiltzean berehala murgiltzen gara gara hartako iragan oparoen. Modu didaktikoan Erdi Aroa ezagutu dezakegu: hiribilduen sorreretakoa ezagutuz, hirigintza eta arlo soziala, orokorrean. Bestalde, Zeraingo Aizpeako meategia ere bisitatu dugu DBH 2ko ikasleekin.

Gaur egun, Burdinaren Mendia bezala ezagutzen den Aizpeako meategia Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Monumentu Multzo izendapena du eta Aizkorri Aratza Parke naturalaren barruan dago kokatua. Burdinaren Mendiak meagintzaren aztarna interesgarri ugari gordetzen ditu: lurrazpiko galeriak, lokomotoraren errailak...

Historia hori guztia eta burdingintzaren prozesua ezin hobeki azaltzen dute Aizpittako Adieraztegiako aretoek, ikus-entzunezko eta erakusgela modernoan bitartez.



Beti arte Iñaki!

Iñaki Urtesaal inguruan jaio zen, Zaldibian, 1951ko otsailaren 26an. Gurasoak Patxi eta Ramoni izan zituen eta anaia, Patxi. 10 urterako Ordizian bizi zen, eta lagunarte zabala izan du herri honetan.

18 urte zituen Sevillara joan zenean aparejadore ikasketak egiteko asmoz eta, bukatu ondoren, Cadizen egin behar izan zuen beste urte eta erdi, garaiko derrigorrezko soldadutza zela-eta. Betidanik gustatu zaio paraje hura eta, urtetan, Huelva izan da oporretarako nahi izan duen destinoa. Hango lagun minekin egoteak lasaitzen zion egonezina, eta pilak ondo kargatuta etortzen zitzaigun lanera. 1974an, Zarautzera joan zen lanera eta, orduz gero, hantxe geratu zen bizitzen.

Iñakiren gauza bakarra aipatu beharko bagenu, lagunarte aitatu genuke. Ordiziako lagunak, Zarauzkoak, ikasten aritu zenean ezagututakoak, aparejadore lanean aurkitutakoak, irakaskuntzakoak, bertsolariak, marrazketa ikasi nahi eta laguntza eskatu ziotenak...

Bigarren aspektu batentzako lekua izanez gero, kultura hitza aipatu beharko genuke. Ezagutza zabaleko gizona zen eta sekula ez zion muzin egin gehiago ikasteari.

1992an, Geografia eta Historian lizentziatu zen Bergaran, UNEDen, eta irakaskuntza munduan hasi zen. Beasaingo Alkartasuna Lizeoan hasi zen irakasle eta, gero, Ordiziara etorri zitzaigun, Jakintzara. Beste gai batzuetan aritu bazen ere (Ekonomia, Artearen Historia...), Batxilergoko Marrazketa izan da Iñakik urtero irakatsi ohi duen gaia. Horrelaxe aritu da iaz arte, gaixotasun larri batek hartu eta erretirarazi zuen arte.

Bueno, gaztek! Bagoaztek!- izaten zen lana bukatzen zueneko despedida. Artean zaletua, Erromanikoa eta Errenazimenduko arkitektura, pintura eta eskultura miretsi zituen. Escherren biribileriek eta ezinezkoak diren marrazkiek erakartzen zuten zeharo. Raphael eta Botticelliren Madonnak ere bai...

Bertsolaritza ere ezin dugu ahaztu, asteartero izan ohi zuen zita. Iñakiren umore fin eta zorrotzak gozamen handia izaten zuen ilunabar horretako hitz jarioan.

Pianojole aparta, Gran Wyominen jarraitzailea, txiste kontalari bizkorra, edozein urtetako urtemugaren eguna asmatzearen erraztasuna predikatzen zuena... Zenbat gauza ahaztuko ote ditugu gure Iñakiren izaera eta bizia kontatzen ari garen honetan? Zoritxarrez, 2010ean oinazeak harrapatu zuen eta 2011ko urtarrilaren 26an utzi egin gintuen.

Horrelaxe dedikatu zion azken lana Iñakik emaztea zuen Kontxi Ugarteri. Guk ere eskerrak eman nahi dizkiogu haren oroimena osatzen lagundu digulako. Iñakiren falta ez du berak bakarrik nozituko!

Zuri, Kontxi!

*Liburu hau ez al da izango
orañdik nire azken zina,
zuri aparki eskertzea baizik
nireganako ahalegina.
Eman didazu, irri jario,
eten gabeko bihotz-grina,
nire etsipenetik zutitzeo
behar nuen jaiki-mina.*

Inaki Garmendia Mendizabal
(Zaldibia, 1951/02/26-Zarautz, 2011/01/26).
Jakintza ikastolako irakaslea azken 18 urteetan.



jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g

tfno. 943 16 05 40

faxa. 943 16 07 90

20240 ORDIZIA

ordizia@ikastola.net



ikastolenelkartea